



Arartekoaren 2024R-1898-22 Ebazpena, 2024ko otsailaren 22koa. Horren bidez, Arartekoak Lan eta Enplegu Sailari GOMENDATZEN DIO azter dezala herritar bati etxebizitzarako prestazio osagarria eteteko erabakia eta nola aplikatu den etendura horrekin lotutako dirua itzultzeko prozedura, kontuan edukita herritarrak frogagiriak aurkeztu dituela zuzenketa-epealdian, horrela prestazioa nola erabili duen egiaztatu duela eta berrikusteko prozeduran ezinbesteko kasua gertatu dela COVID-19aren ondorioz.

Aurrekariak

1.- Herritar batek kexa bat aurkeztu zion Arartekoari, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) eten ziolako eta ez zegoelako ados bidegabe jasotako diru kopuruak itzuli behar izatearekin.

Lanbidek prestazioaren ordainketa eten zuen 2020ko ekainaren 20ko ebazpen bat bidez. Ebazpen hura 2020ko uztailaren 2an jakinarazi zen. Prestazioa eteteko arrazoia izan zen ez zela bete Etxebizitzarako prestazio osagarriari buruzko 2/2010 Dekretuak 19.3 artikuluan ezartzen duen betebeharra, ez baitziren aurkeztu alokairua ordaindu zelako frogagiri baliozko batzuk. Hain zuzen ere, 6 frogagiri falta ziren, 2019ko uztailakoa, abuztuakoa, irailekoa, urriakoa, azarokoa eta abendukoa.

Aurretik, 2020ko martxoaren 9an, Lanbidek frogagiri horiek aurkezteko eskatu zion interesdunari. Eskaera-idazki hartan Lanbidek adierazi zuenez, DSBE eta EPOren titularrak aurretik aurkeztutako hilabete horietako alokairuaren frogagiriak ez zirela baliozkoak, dirua jaso behar zuen pertsonaren sinadura falta zelako, hau da, azpierzantzailearena.

Kexagileak bere kexa-idazkian azaldu zuenez, dokumentazio-errekerimendu hura konfinamenduan jaso zuen, Lanbideren bulegoak itxita zeudela. Hori dela eta, aipatu zuen aurrez aurreko arreta bertan behera geratu zela ia administrazio guztietan 2020ko martxoaren 14an, alarma-egoera dekretatu zenean.

Interesduna 2020ko ekainaren 30ean aurkeztu zituen frogagiriak behar bezala beteta. Lanbidek emandako frogagiriaren azalpen-atalean honela zehazten da zer eman zen: "justificante alquiler de julio 2019-diciembre 2019". Kexagileak bere kexa-idazkian adierazi zuenez, nahiz eta Lanbidek berriz ere aurrez aurreko arretari ekin 2020ko ekainaren 1ean, ezin izan zituen arinago aurkeztu, ez baitzuen hitzordurik lortu bere erreferentziazko bulegoan.





2020ko uztailaren 20an Lanbidek EPO etetea ezartzen zuen ebazpena jakinarazi zion interesdunari. Ebazpen horretan bertan Lanbidek adierazi zuen kexagileak EPO dela eta 1.500 euro bidegabe jaso zituela 2019ko lehen 6 hiletan.

202ko abuztuaren 27an kexagileak berraztertzeke errekurtsua aurkeztu zuen prestazioa eteteko ebazpenaren aurka. Horretarako, "alegazioen" formularioa erabili zuen, baina, kontuan hartuta prozesuko zer fasetan aurkeztu zuen, errekurtsua aurkeztu nahi izan zuela ulertzen da. Arartekoari kexa aurkeztu zionean (2022ko iraila), kexagileak artean ez zuen jaso errekurtsu horren ebazpena, eta esan du ebazpen hau eman denean ere (2024ko otsaila) ez duela oraindik ezer jaso.

Egun berean (2020ko abuztuaren 27a), berariaz bidalitako beste idazki batean, eskatu zuen berriz ere EPO ordaintzeko, eta gaur egun normaltasunarekin jasotzen ditu DSBE eta EPO lanaren diru-sarreraren osagarri gisa.

Beste alde batetik, 2020ko abuztuaren 28an Lanbidek itzulketa-prozedurari ekin zion. Prozedura hura 2020ko urriaren 26an ebatzi zen: ezarri zen 1.500 € itzuli behar zituela. Orain, zorra egungo prestaziotik deskontatzen ari da.

Laburbilduta, Lanbidek errekerimendua egin zuen 202ko martxoaren 9an eta gero, COVID-19aren osasun-krisiaren ondorioz aurrez aurreko arreta bertan behera utzi ondoren, kexagileari jakinarazi zitzaion. Administrazioa berriz ere aurrez aurreko arreta ematen hasi ondoren interesdbuna hitzordua eskatu zuen Lanbiden, baina hitzordu-eskaera asko pilatu ziren, eta ekainaren 30era arte ezin izan zioten eman. Egun hartan aurkeztu zuen dokumentazioa. Lanbidek ekainaren 20an eman zuen prestazioa eteteko ebazpena, baina titularrari ez zion jakinarazi 2020ko uztailaren 2ra arte, hau da, dokumentazioa espedientean sartu eta handik bi egunetara.

2.- Kexa izapidetzeko onartu ostean, Arartekoak informazio-eskaera bat bidali zion Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari. Bertan, zenbait gogoeta egin zituen Arartekoak. Geroago erantsiko ditugu, ez dugu nahi ebazpenean gehiegi errepikatzea eta.

Hain zuzen ere, Arartekoak honako hauek argitzeko eskatu zion:

"a) Lanbidek 2020ko ekainaren 20an igorri zuen, eta eten egin zen ebazpenaren jakinarazpen-data. 2020ko ekainaren 30a baino lehen edo ondoren egin zen argitzea; izan ere, kexagileak adierazi du egun horretan aurkeztu zituela egiaztatgiriak sinadura egokiekin.





b) Jakinarazpen hori ekainaren 30a eta gero egin bada, dokumentazio hori aintzat ez hartzeko arrazoiak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 73.3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) Kexagileak 2020ko abuztuaren 27an aurkeztutako errekurtsoren izapidetze-egoera. Arren eskatzen dizut ebazpenaren kopia bidali diezadazun.

d) EPOren kontzeptuari dagozkion prestazioen erreklamazioa erabaki izana baldin eta interesdunak, nahiz eta atzeratu, jasotzeko betekizunak betetzen dituela egiaztatu izan

e) Azaldutako egitateei lotuta interesgarritzat jotzen duzun beste edozein inguruabar".

Eskatutako epealdian erantzun ez zuenez, 2022ko abenduan errekerimendua bidali genion, eta gogorarazi genion lehentasuna emanik eta albait lasterren erantzun behar diola erakunde honi, Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. artikulua ezartzen duen moduan.

3.- Azkenik, Lan eta Enplegu Sailak erantzun du eta Lanbideko zuzendari nagusiaren txostena erantsi du:

"Planteatzen diren gaiei buruz honako hau adierazi behar da:

Lanbidek 2020ko ekainaren 20an igorritako ebazpenaren jakinarazpena (prestazioa eteten zuena) etxean bertan jakinarazi zen, bigarren saiakeran, **2020ko uztailaren 2an; hau da, 2020ko ekainaren 30a pasatutakoan.**

Bigarren puntuari dagokionez, izapideen fasean zehar ezin dugu kontrolatu igorritako ebazpen bat zein datatan jakinaraziko den. Kasu honetan, ebazpena interesdunak dokumentazioa aurkeztu aurretik igorri zen. Gainera, administrazio-epeak eten ziren, martxoaren 14ko 463/2020 Dekretuak ezarritako alarma-egoerak eragindakoak.

Lanbidek etxebizitzarako prestazio osagarri gisa oker ordaindutako kopuruak erreklamatu zaizkio, **eskatutako ordainagiriak, aurkeztu bazituen ere, epez kanpo aurkeztu zituelako.** Epeak 2020ko ekainaren 1ean berrabiarazi ziren eta, aurkezteko 10 egun izanik, 2020ko ekainaren 30ean aurkeztu zuen.





2020ko abuztuaren 27an, **alegazioak aurkeztea gorabehera (eta ez errekurtsua, nahiz eta hori litzatekeen egokiena prozeduraz), epea gaindituta zegoen. Are gehiago, aleggazio horietan prestazioa berrabiarazteko eskatzen du¹. Prestazioa berrabiarazi zaio, atzerako ondoreekin”.**

Beraz, beharrezkoak diren aurrekariak eta zuzenbideko elementuak dauzkagula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin ditugu:

Gogoetak

1.- Kexa-espeditente honen helburua da aztertzea ea Zuzenbidearekin bat datorren interesdunak jasotzen izan duen EPOa etetea. Lanbidek prestazio hori etetea erabaki zuen ez zitzaiolako eman eskatutako dokumentazioa ezarritako epealdiaren barruan, hain zuzen ere 2019ko bigarren seihilekoan prestazioa etxebizitza ordaintzeko erabili zuelako frogagiriak. Gainera, ebazpen honetan aldi horretan ordaindutako prestazioa itzuli behar izatea ere aztertzen da.

Etxebizitzarako prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 19. artikularekin bat etorritik, *Egindako gastuen justifikazioa* direla eta:

“1. Emate-ebazpenari dagokionez, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren titularrak sei hilean behin ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren alokairu-gastuen frogagiriak udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuari aurkeztu beharra ezarriko da. Frogagiri horiek ordainagiri pribatuak, fakturak, edo banku-ordainketako frogagiriak izan daitezke. Sei hilean behingo aldizkakotasun hori egoki jotzen den bezainbeste laburtu ahalko da mugikortasun handia ikusten den kasuetan, eskatzailearen ohiko bizileku aldaketekin.

2. Gastuak egin izanaren frogagiriak pertsona fisiko edo juridiko igorlearen identifikazioko eta lokalizazioko oinarrizko datuak, haren identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) edo nortasun-agiri nazionala (NAN) baren, gastu-kontzeptua eta horiek dagokien zenbatekoa bildu beharko ditu.

3. Banketxe bidez egiten ez diren ordainketen kasuan, pertsona fisikoen frogagiriak haien sinadura izan beharko dute eta, pertsona juridikoen kasuan, aplikatu behar zaien arautegiaren arabera eman behar duten faktura, alokairuaren zenbatekoa ordaindu dela adierazten duena, aurkeztu beharko da”.

¹ Letra Iodia Arartekoarena da.



Gainera, dekretu beraren 24.2.a) artikuluan xedatzen denaren arabera, EPOa etengo da "Etxebizitzako Gastatuetarako Prestazio Osagarriarekin aurre egin zaien etxebizitzarekin edo bizitokiarekin loturiko gastuak behar bezala egiaztatzen ez direnean".

Horregatik guztiagatik, enpleguko erakunde autonomoaren errekerimendua arloko araudiaren itzalpean zegoen, antzeman baitzen kexagileak azpierrentatzen zuen gelaren alokairuaren ordainketaren frogagiri batzuetan ez zegoela azpierrentariaren sinadurarik.

Errekerimendua eman zenean egoera normala zen. baina jakinarazpena COVID-19aren osasun-krisiaren ondorioz alarma-egoera deklaratu ondoren egin zen, hau da, herritarrek mugitzeko gaitasuna mugatuta zutela² eta, are garrantzitsuagoa dena, epealdi administratiboak etenda zeudela³ eta administrazio gehienen (Lanbide barne) herritarrentzako arreta itxita zegoela. Epealdi administratiboak, dakigun bezala, ez ziren berriz hasi 2020ko ekainaren 1era arte⁴: egun hartan ekin zioten berriro aurrez aurreko arretari enpleguko erakunde autonomoan.

Aurrekarien atalean azaldu den bezala, Lanbideren bulegoetan berriz ere aurrez aurreko arreta ematen hasi zirenean, kexagilea hitzordua ahalik azkarren lortzen saiatu zen, baina bulegoak ireki ondoko lehen hilean hitzordu-eskaera asko jaso zituzten, eta kexagileak dio lehen hitzordua ekainaren 30erako eskaini ziotela. Ehun horretan eraman zituen Lanbidera ondo betetako frogagiriak, hau da, azpierrentariak sinatuta.

Arartekoaren iritziz, administrazio guztiek eduki behar lukete kontuan nolako eragozpenak izan zituzten herritarrek osasun-krisiaren eraginez aldi hartan, batez ere 2020ko lehen hiruhilekoan. Izan ere, zailtasun haien ondorioz erabat aldatu behar izan ziren herritarren eta administrazioen arteko harremanak, eta denak ez ziren modu berean moldatu aldaketa haietara.

Izapideak egiteko eta dokumentuak aurkezteko baliabide telematikoak zeuden, eta orain ere bai, Lanbideren web orriaren bidez edo kanal elektronikoen bidez, baina garrantzitsua da gogoan edukitzea pertsona fisikoen eta administrazioen arteko harremanak telematikoak izatea eskubidea dela araudiaren arabera, ez betebeharra. Hala ondorioztatzen da Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 13.

² Osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Dekretuaren 7. artikulua (pertsonek zirkulazio askea mugatzeari buruzkoa); horrekin, epealdi administratiboak eten ziren.

³ Bigarren xedapen gehigarria. Prozesu-epealdiak etetea.

⁴ 463/2020 Errege Dekretuak ezarritako alarma-egoera luzatu zuen maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren 9. artikulua.





artikuluaren, zeinaren arabera erabiltzaileek eskubidea baitute: “Administrazio publikoekin komunikatzea Administrazioaren irispide-puntu elektronikorokor baten bitartez (...)”.

Egoera horrek kolektibo jakin batzuei eragin die eta eragiten die, izan ere, horiek, inguruabar jakin batzuk direla eta (esate baterako, ekonomia- eta gizarte-bazterketa, hizkuntza-oztopoak, adina, edo orokorrean, teknologia berriak erabiltzeko gaitasun eskasa), modu nabarmenagoan hauteman zituzten administrazioaren zerbitzuetara jotzeko eragozpenak.

Hil haietan Arartekoak arrakala digitalaren inguruko kexa asko jaso zituen. Kexa haiek gomendio honetan aztertu ziren: 4/2020 Gomendio Orokorra, 2020ko azaroaren 5ekoa; gaia: *Herritarrenganako arreta indartzeko beharra, administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak baliatzean kalteak saihesteko eta bazterkeria digitalaren kontra borrokatzeko neurriak hartzeko larrialdi egoeretan, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko egoeretan, besteak beste*⁵. Hartan esanari lotzen gaitzaizkio.

Horrenbestez, orduan bezala, erakunde honek uste du EAEko administrazioek malgutasun handiagoarekin hartu behar dutela pandemiako aldirik gogorrean herritarrek administrazioarekiko harremanetan egin zutena, zeren eta indarreko araudia zorrotzegi edo gehiegizko formalismoarekin interpretatzeak orduko egoera latza are gehiago larritzea ekar baitezake.

2.- Orobat, Arartekoak gogora ekarri nahi luke zer ezartzen duen indarreko araudiak prozedura administratiboetan dokumentuak aurkezteari buruz.

Kexagileak azkenean dokumentazioa aurkeztu zuen epealdia dela eta, Lanbideek honako hau adierazi du: “Lanbidek 2020ko ekainaren 20an igorritako ebazpenaren jakinarazpena (prestazioa eteten zuena) etxean bertan jakinarazi zen, bigarren saiakeran, 2020ko uztailaren 2an; hau da, 2020ko ekainaren 30a pasatutakoan”.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 73. artikulua arabera⁶:

⁵ Eskuragarri hemen: <https://www.ararteko.eus/eu/arartekoaren-42020-gomendio-orokorra-2020ko-azaroaren-5ekoa>.

⁶ Aurreko Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 32/1992 Legearen 76. artikulua testua 76.3 apartatukoa bera da: “(...) 3. Aurreko paragrafoetan jasotakoa betetzen ez duten interesdunek izapidea betetzeko eskubidea galdu dutela jo daiteke; dena den, interesdunaren jarduna onartu egingo da eta lege-ondorioak izango ditu, epe amaitutzat jotzen duen ebazpena jakinarazten zaion egunean bertan edo lehenago egiten badu”.





"1. Interesdunek bete beharreko izapideak hamar eguneko epean egin beharko dira, dagokion egintza jakinarazi eta biharamunetik zenbaturik, dagokion arauak bestelako eperik ezartzen ez badu.

2. Prozeduraren edozein unetan, Administrazioak, irizten badio interesdunen egintzaren batek ez dituela betetzen behar diren betekizunak, hala jakinaraziko dio egintzaren egileari, eta hamar eguneko epea emango dio egintza hori behar bezala betetzeko.

3. Aurreko zenbakietan xedatutakoa betetzen ez duten interesdunek dagokion izapiderako eskubidea galdu dutela deklaratu da. Hala ere, interesdunaren jarduketa onartuko da, eta legezko ondorioak izango ditu, **baldin eta epea iragantzat jotzen den ebazpena jakinarazten den eguna baino lehen edo egun horren barruan gertatzen bada**⁷".

Esan den bezala, kexagileak ekainaren 30ean erantzun zion errekerimenduari, eta ebazpena ez zen jakinarazi 2020ko uztailaren 2ra arte, ekainaren 20koa izan arren. Kexagileak ezin izan zuen aurkeztu dokumentazioa Lanbidek eman zion 10 eguneko epealdiaren barruan, **baina argi dago behar bezala betetako frogagiriaren kopiak aurkeztu zituela prestazioa eteteko agindu zuen ebazpena jakinarazi baino lehen**. Legearen testua argia da horretaz: "interesdunaren jarduketa onartuko da, eta legezko ondorioak izango ditu, baldin eta epea iragantzat jotzen den ebazpena jakinarazten den eguna baino lehen edo egun horren barruan gertatzen bada". Uztailaren 2an jakin zuen interesdunak Lanbideren erabakiaren berri, hau da, behar zen dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Hori dela eta, lagungarria izango da Auzitegi Gorenaren 2022/646020 epaia, 2022ko uztailaren 20koa, gogoraraztea, hemen hizpide dugunaren antzeko kasua aztertzen baitu.

Manu honi eman beharreko interpretazioaz ari dela, Auzitegi Gorenak dio (azpimarratuta) manuan hauxe aipatzen dela: "antes o dentro del día que se notifique la resolución en la que se tenga por transcurrido el plazo. [...]". Eta ondorio honetara iristen da: "Una vez sentado lo anterior, no se discute que, desde la expiración del plazo de diez días dado con fecha 6 de septiembre de 2018 a los aspirantes aprobados hasta que mediante la resolución de 10 de diciembre de 2018 se declaró - entre otras cosas- decaída en su derecho a la recurrente, la Administración no adoptó ninguna resolución. Ello significa que "el día que se notifique la resolución en la que se tenga por transcurrido el plazo" no puede ser,

⁷ Letra lodia Arartekoarena da.





en este caso, sino aquél en que se notificó la resolución de 10 de diciembre de 2018 (...).".

Beraz, jurisprudenziaren arabera, ebazpenaren jakinarazpena noiz egin den hartu behar da kontuan.

Ebazpen honen xede den kasuan, Lanbidek prestazioa etetea erabaki zuen ekainaren 20an, baina uztailaren 2ra arte ez zion jakinarazi kexagileari. Kasu honetan, aurretik jakinarazpen-abisua egin izanak ez dauka eraginik jakinarazpenaren baliozkotasunean, 39/2015 Legearen 42. artikuluan araututa dago eta.

Beraz, 39/2015 Legearen 73.3 artikuluan ezartzen denarekin eta hori interpretatzen duen jurisprudenziarekin bat etorritz, kexagileak Legeak ezartzen duenari jarraikiz aurkeztu zituen Lanbidek eskatutako dokumentuak, ebazpena jakinarazi baino lehen, eta ondorioz enpleguko erakunde autonomoak hala interpretatu behar izan zuen eta ulertu behar izan zuen kexagileak jaramon egin ziola dokumentazio-errekerimenduari.

Kexagileak aurkeztutako erreklamazioari dagokionez, Lanbidek Arartekoari bidalitako erantzun-txostenean adierazi du kexagileak erreklamazio-idazkia aurkeztu zuela eta bertan eskatzen zuela prestazioa berriz ordaintzeko, eta azaldu du epealditik kanpo aurkeztu zuela. Hala ere, kexagileak kexa-idazkiari erantsitako dokumentazioak argi erakusten du 2020ko abuztuaren 28an bi idazki aurkeztu zituela: batean prestazioa berriz ordaintzeko eskatzen zuen; bestean kexa eragin zuen etenduraren erreferentzia-zenbakia aipatzen zuen eta esaten zen honako hauek aurkeztu nahi zituela (hitzez hitz): "alegaciones contra la resolución consecuencia de la revisión". Argi dago bi idazkiak epez kanpo aurkeztu zirela; hala ere, APELen 21. artikuluan ezartzen denari jarraikiz, administrazioak ebazpena eman behar zuen, berariaz adierazteko ez zuela errekurtsioa onartzen, eta gero ebazpena alderdi interesdunari jakinarazi behar zion.

3.- Azkenik, bidegabe jasotako prestazioengatik 1.500 € itzuli beharra dela eta, erakunde honek uste du ezen, aurreko apartatuko gogoeten arabera, diru kopuru hori itzultzeko prozedura deuseztatu behar dela.

Aurrean aipatu diren prozedura-arazoez gainera, justizia materialaren ikuspegia ere kontuan eduki behar da.





Etxebizitzarako prestazio osagarriari buruzko 2/2010 Dekretuak 2. eta 4. artikuluetan ezartzen duenarekin bat etorriz, prestazio horren helburua da onuradunaren ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren inguruko beharrezanean erantzutea, hain zuzen ere ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren alokairu-gastuak ordaintzea, edozein modalitatetakoak: errentamendua, azpierrementamendua, baterako errentamendua, ostatua edo logelaren alokairua.

Horren ildotik, azpimarratu beharra dago Lanbidek dirua itzultzeko prozedura hasi baino bi hilabete lehenago kexagileak aurkeztu zituela hileroko bizi zen logelaren azpierrementamenduarengatik ordaintzen zituen 250 euroak ordaindu zituelako frogagiriak: prozedura 2021eko abuztuaren 28an hasi zen eta frogagiriak ekainaren 30ean aurkeztu zituen. Lanbidek erakunde honi bidalitako txostenean onartu du hori.

Horregatik, esan daiteke dirua itzultzeko prozedura hasi zenerako enpleguko erakunde autonomoak bazekiela interesdunak egiaztatu zuela betetzen zituela EPOa jasotzeko baldintzak, zeren eta behar bezala betetako frogagiriak aurkeztu baitzituen eta Lanbideri frogatu baitzion zertarako erabili zuen etxebizitzarako prestazio osagarria.

Horrenbestez, kexagileak frogatu du etxebizitzarako prestazio osagarria etxebizitza-beharrizantarako erabili duela, frogagiriak aurkeztu ditu zuzenketa-izapidean, araudian ezarritako baldintzak beteta, eta hori guztia COVID-19aren eraginez hitzorduak orokortu zirela eta bulego publikoetako arreta-harremanak erabat aldatu zeudela egin du.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Lan eta Enplegu Sailari, erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Arartekoak Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuari gomendatzen dio azter dezala herritar horri etxebizitzarako prestazio osagarria eteteko erabakia eta nola aplikatu den etendura horrekin lotutako dirua itzultzeko prozedura, kontuan edukita herritarrak frogagiriak aurkeztu dituela zuzenketa-epealdian, horrela prestazioa nola erabili duen egiaztatu duela eta berrikusteko prozeduran ezinbesteko kasua gertatu dela COVID-19aren ondorioz.

